

**BILBO-BASURTU ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA**

BILBO-BASURTU ESiko zuzendari gerentearen irailaren 25eko 1743/2014 EBAZPENA, Araceli Carpintero Iglesias andrea izendapen askez Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko BILBO-BASURTU ESiko Administrazioiko taldeburu izendatzeko.

Apirilaren 14ko 327/2014 Ebazpenaren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko BILBO-BASURTU ESian Administrazioiko taldeburu lanpostu bat (Kudeaketa Sanitarioko Unitatea) izendapen askez betetzeko deialdia argitaratu zen.

Batzordeak aurkeztutako eskabideak baloratu ditu, eta dagokion izendapen-proposamena egin du. Horiek horrela, eta Araceli Carpintero Iglesias andreak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan hartuta, erabaki da pertsona hori izendatzea, izendapen aske bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko BILBO-BASURTU ESiko Administrazioiko taldeburu.

Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legeko Hirugarren Arau Komuneko 28. artikuluan, Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezartzen denarekin bat, zera

**EBATZI DUT**

Lehenengoa.- Araceli Carpintero Iglesias andrea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko BILBO-BASURTU ESiko Administrazioiko taldeburu izendatzea.

Bigarrena.- Izendapen honek 2014ko urriaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.-Izendapenak egin dituen organoak edozein unetan kargugabetu ditzake, bere eskumen-ahalez, izendapen askeko sistemaren bidez izendatu dituen langileak. Kargutik kentzeak zera eragingo du: langilea beste postu funtzional batera lekualdatuko dela, baina, edonola ere, interesdunak duen kategoriari dagozkion baldintzei eutsiko diela. Hain zuzen, antzeko ezaugarriak dituen lanpostu bati atxikiko zaio eta, ahal dela, izendapena jaso aurretik betetzen zuen lanpostuak zeuzkan ezaugarri berberekin antolakuntzari eta lurraldetasunari dagokienez. Atxikipen horrek, hain zuzen, kargugabetze-dataren biharamunetik aurrera izango ditu ondoriok, eta Osakidetzak berak ezarritako prozedurari jarraituz gauzatu da. Lanpostua betetzeko eskatzen diren betekizun eta baldintza guztiak bete beharko ditu.

Laugarrena.- Ebazpen hau interesdunari eta BILBO-BASURTU ESiko Pertsonaleko Zuzendaritzari jakinaraztea.

Bosgarrena.- Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau EHAAan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bilbon, 2014ko irailaren hogeita bostean.

BILBO-BASURTU ESIKO ZUZENDARI GERENTEA /  
LA DIRECTORA GERENTE DE LA OSI BILBAO-BASURT

Iz./Fdo.: MICHOL GONZALEZ TORRES

 **Osakidetza**  
**GERENTZIA**  
**GERENCIA**

BILBO-BASURTU ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA  
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA BILBAO-BASURTO

**ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA BILBAO-BASURTO**

RESOLUCIÓN 1743/2014, de 25 de septiembre, de la Directora Gerente de la OSI BILBAO-BASURTO, por la que se nombra, mediante libre designación, a D<sup>a</sup>. Araceli Carpintero Iglesias, Jefe de Equipo Administrativo en la OSI BILBAO-BASURTO de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

Mediante Resolución 327/2014, de 14 de abril, se convocó la provisión, mediante libre designación, de un puesto de Jefe de Equipo Administrativo (Unidad de Gestión Sanitaria) en la OSI BILBAO-BASURTO de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

Efectuada por la Comisión la valoración de las solicitudes presentadas así como la correspondiente propuesta de nombramiento, y a la vista de los conocimientos académicos y profesionales que concurren en D<sup>a</sup>. Araceli Carpintero Iglesias procede efectuar su nombramiento, mediante libre designación, como Jefe de Equipo Administrativo en la OSI BILBAO-BASURTO de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 28 Norma Común Tercera de la Ley 8/1997 de 26 de junio, de Ordenación Sanitaria de Euskadi, en el Decreto 186/2005, de 19 de julio, por el que se regulan los puestos funcionales de Osakidetza, y en el Decreto 255/1997 de 11 de noviembre,

**RESUELVO**

Primero.- Nombrar a D<sup>a</sup>. Araceli Carpintero Iglesias Jefe de Equipo Administrativo en la OSI BILBAO-BASURTO de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

Segundo.- El presente nombramiento surtirá efectos el 1 de octubre de 2014.

Tercero.- El personal nombrado para puestos de trabajo por el procedimiento de libre designación podrá ser cesado con carácter discrecional por el órgano que efectuó el nombramiento. El cese o la remoción supondrá el traslado a otro puesto funcional, manteniéndose en todo caso las condiciones propias de la categoría que ostente el interesado, efectuándose la adscripción a puesto de las mismas características y preferentemente en el mismo ámbito organizacional y territorial que venía ocupando con anterioridad a su nombramiento. La adscripción tendrá efectos del día siguiente al de la fecha de cese y se efectuará conforme al procedimiento que se fije en Osakidetza. Deberá reunir todos los requisitos y condiciones exigidos para la provisión del puesto.

Cuarto.- Notifíquese la presente resolución al/la interesado/a y a la Dirección de Personal de la OSI BILBAO-BASURTO.

Quinto.- Contra la presente Resolución podrá interponerse recurso de alzada, ante el Director General de Osakidetza-Servicio vasco de salud, en el plazo de un mes contado a partir del siguiente al de la publicación de su Anuncio en el BOPV.

En Bilbao, a Veinticinco de septiembre de 2014.

BILBO-BASURTU ESIKO ZUZENDARI GERENTEA /  
LA DIRECTORA GERENTE DE LA OSI BILBAO-BASURTO

Iz./Fdo.: MICHOL GONZALEZ TORRES